

# Euskal - orria

## «Aberri»ren omenaldia

### Euskal idazleak, biyar guziok Elgoibar'a

Iru eginear ditugu biyar «Aberri»ren omenaldira juatekoak geran idazle «usteko» guziak.

Idako eusko idazle alde esango dan meza entzun.

Ontarako Donosti'tik 6.30' etan eta Bilbao'tik 6.35'etan iritien diran bultziak artu bear. Ontara 8 ta laurde-tarako Elgoibar'en bai gifaie.

Ez dute ordea, idazle guziak ain goiz ibiltzeko aukerarik izango, emakumezkoak batez ere. Ta oentzat, Bilbao'tik 9.20'tan ta Donosti'tik 9.30'etan iritien diran bultziak dauzkagu. Oetan 11.k aldera Elgoibar' eratuko lirake, bigafer eginbeata betetzeko ainbestean

Euskal idazle batzafera garai garalz epada ere, asi berlan iritxiko bait dira.

Euskal idazle batzar ontan erabili nai genduzken galak, lengo asteko «Argia»n azaldu ziran. Ona zeintzuk diran:

1.º. — Euskal Idazle Batza.

2.º. — Euskeraren batasuna. Iritziak Inburki azaltzeko astia besterik ez ta izango, aseré biderik izan ez dedin.

3.º. — Erietako berlak nola bidaidu.

4.º. — Gaurko asteroko, Euskal ori ta Euskal aletan zer gai erabili.

5.º. — Txistu? Onetaz norbaitek egin duan lanari, isatsa palta zain. Isats ori, efi bakoitzean zenbat bearko lirakenen befi jakitea besterik ez. Gaurtik biyarko tarte ontan, emakume ta gaztetxoan befi deuzten idazle adiskideak, kontu batzuek atera itzazute, ta ia biyar aitatuko, lanari isatsa eraxten diozuten.

6.º. — Euskal egunerokoa?

7.º. — Sortu dibeken beste edozein gai.

Idazleak, etzaltzte bat ar ontara gabe gelditu.

Norbaitzuek ezin etofri al bazifateke ere, badegu ordea inork utsik egin bear ez luken frugaren «arazo» bat: omen bazkaria, «Aberri»ren nalez abertzale utentzat izango dan bazkari gozoa.

Ta bazkaria gafalz ifitxeko bai Donosti'tik ta bai Bilbao'tik bultzi bereziak dituzute: 11.30'etan andik eta 11.48'etan beste aldetik.

Beraz bazkairako guziok Elgoibar'

en izango geran kezka txikienik ez daukat.

Bazkalandean zer izango degun ez dakit, baña «umore ona» bai beintzat. ¿Ez al da ala?

Biyar arte ba.

Luzear

### Tori nere iritzia ere

Tira: noizik bein idazkortza artzen det beintzat eta, euskel idazlien artean nafaxka beiderik izen bat erabili ere bai, onenbestez or nijuakizute igandez Elgoibar' a, «Mirentxu», ene adizkide maite.

Zuk beintzat ondo artuko nazu; gure «Aberri» zintzoak kopetilik beñere ez inori; zeren bildur nezake? Zalaparta ugari ta ezer egingo ez ote degun bildur naiz.

Ara nere iritzia:

Euskel idazle Elkarte sortu bear dala. Zertako? Nere iritziz, oraingoz, eta lenengo, euskelgien batasunari bide emateko. Auxe da gaur gafantzal aundiduun gauzeetako bat gure artean. Bai edo ez, nola ta zer, autarkiz erabaki bertan.

Eusko Alderdiaren edo Euskaltzaleen menpe? Au ere autarkiz erabaki, ta gaitzaleak burua makurtu. Ala oi da, ta ala bear da. Bestela ez da ezer egiterik, ez da batasunik. Geien dana, nagusi. Batzar artean, gertu egon bitez autarki ingiak.

«Txistu»? Uste berdifizez ba' gera, onetaz ere beste orenbeste.

Eta Jaungoikoaren! Ez beintzat batzafa amakaterdiak baño len... Ezifia da guziak lenengo bultziatan Elgoibar'a juatea. Ta bazkaria ordu bietan ezin bada, iruretan, igande ortan bazkaltzeko orduak kezkarik gutxien eman bear digu ta.

Onezkeru «Mirentxu»k esan du: «Aie, nere jakien «tenplea!» Ez bildurtu, edozela jango degu ta.

Tene

### Entzun, arren, nerea

Euskalefiko seme guziak ez gera abertzaleak! Abertzale ez izanik, euskeraren kaltezaleak ote gera, ordea?

Abertzalean idazle bikañak dirala ezin ukatu. Oek añakoak ez izan afen, beste eusko zualtzaren adarfen ere badira ordea idazle jator askoak.

Zergatik ukatu bada guri Ama Euskeraren biotzeko amorioa?

Ta guk euskera maite badegu, nola liteke euskal idazle batzaretan, abertzaleak toki golenetan ta beste abafekoak ezta malazpian ere?

Etziran arako beren zain odolez euskal luña bustiaz, abertzaletasunaren oñafia jafi zutenak ere gaur zuek zeraten bezelakoak, baña nork ukatu aiek ere Euskalefia ta euskera maite zituztela? Gaurdño euskera iritxi ezpaltiz, Jel nun izango ote zan gaur? Ta Jel gabe, bere idazlerik bai ote?

Gaur gogor salatzen zerate aber-

El café bueno no puede ser barato. El surtido que expendemos es puro, legítimo y de tute natural. CASA DELBOS - ELICEGUI HERMANOS

tzaleak, baña besteok ere gere ale-gintxoá egiten degu.

Ni azken azkenengo idazle izeneko «kirten» bat naiz. Zerbaitegatik orain txe urte bete, Bilbo'ko izperkari batek ondorengo galdez bataiatu nindun: «Erena, ofietik ala burutik zera efena?» Galdetu zuana abertzale zuzena izango zan, noski, ta bere uestez Jel izenean ondo esana, bota zidana.

Burutik efena izan afen? Galtamar urtetik befogeira badaramazkit, euskal ofidun izperingara dago ordaintzen, bost urte bai beñiz, idazten, (kirtenkeriak noski), Kirtenkeriak diralako ez det xentimorik egundafio eskatu, ta bai zizkutik txakur txikia pranko atera, papel ta azalak ordaintzeko. Ta ori karlisten adafekoa naitzelarik. Ta ori karlista izanda Euskeria maite? Orixe, bai. Ta euskal idazleak biotz biotzetik Ori nik. Ta karliste adafean zenbat dira nik baño milloka gelago Euskalefia maite ta goratzen dutenak!

Ta alare, euskal idazle batzafetan abertzale ez beste danak txokora? Agur ta erdi, jaunak.

Efena

### Elgoibar

Aspaldi onetan ainbat aldiz gora ta bera ibili degun idazle batzafa ta «Aberri»ren omenaldia urtían ditugu oraintxe. Uferago ta zalaparta aundiagoarekifi gañera.

Poztu guziok, geu ere alaxe gaude urerago ta pozago, alkar ezagutzeko ta artzen ditugun asmoal gogor jafaitzeko.

Datofen igande onetan idazle euskoar asko bilduko geralakuan gera. Alde guztietatik idazle taldeak datozen befi ona geurekin degulako. Iru-rogeitik gora dira badatozela aditerra eman dutenak. Aspaldi onetan bat tu eztan bezelako idazle morduá batuko gera igandian J. I. baña... orain ere bafioka naiz... alegia baditugu oraindik idazle pikkor batzuek jaramonik egiñ ez digutenak, eta idazle aiek gure batzar onetan oso bialeko zaitzigu, langile aundiak diralako.

¿Nun zerate ba zuek aizpatxo kutunak, aspaldian aifi idazki mamitsuak egiñ dituzuten idazleme «Arkaitz-Arte», «Baso-Lore», «Intza», «Arantza», «Inaxi», «Yolanda» ta abar? ¿Ez aldeute igandeko anal artera etortzeko asmorik? Ez nere del txiro, eta «Aberri»ren omenagatik, baño ez det ueste gure izkuntza oni egiten diogun omenaldi onetara etofri gabe gelditzeko afeko biotz gogofik zuen artzen izango danik, ez biar beintzat.

¿Gumero izpafingieri beñira nago noiz bafio noiz zuen idazkietan baztoztela irakuriko ote dedan, baña oraintxe itzaropena galdü detanien izki trakets auek egitera biartu naiz. Ia ba danok etortzen zeraten, obeto ezindako eran daukazute golzoko beribila, ta animo.

«ZOROSPE»RI. — ¿Platerak garbitzera? Ez maite. ¿Onoko aspaldi baten gegeratzen alitera ostikada arekin? Ba arentxen onduan bazkaldu biar dezu igandian. ¿Utertzen?

EMEN AGURTU DITUGU Amasa'ko E. A. B.'ko Lendarika, eta bere senar Dafas'tar Karla beren flobatxo 'Igonexu'rekin. Oso atsegini izan ditzauden zuek ezagutzia, ta nai deuzen arte beñiz ere.

ANDOAIN'GO «PATXI»RI. — Zu ezagutzeko aifi gogo biza neukan ta oso tamalez irakufi nuan zure ezifi etofia. Beste baten blarko orduan. Ta jafaitu orain arte bezelaxe beti gogo Aberri alde.

—o—

Igandean onutz etortzeko asmusan zeraten idazle anal eta aizpatxo guz-

### Amasa-Billabona

ERRIKO JALAK. — Jendetza ikusgafiakin ospatzen ari dira efi ontako zandariaren jayak.

Mota guztietakoak izan dira, oraindafiokoak beñepin, bigarkoak eta ifiaki Deun, egunekoa ez dakit nolakoak izango ditugun.

Egun bi oyetan, bear bada efiko «peñak» alde batera laga eta Antigora joan bear degu aurenko egunean Bigafenean beñiz. Atotxa zelalain egingo diran Ezpatadantzari talde guzcion sailora, soka tirako txapelketa, ari zulatzale, irule eta gafantzako sailoak ikustera.

Onela egiten badegu, Donostia'k beñero ikusiko du zeñen idar gogofia daukan abertzaletasunak.

EZPATADANTZARIAK. BERAN-DU BENIK. — Gauz guztiari irixten zayola askena, dio esera zarak, bai, eta geure ezpatadantzarian utsumeari ere iritxi zayo.

Efi gutxi izango dira gaurko egunean, beran utsumeari topatzen dana (zoririkafez geurea izandu dan bezela orandaño). Emendik aufera eñin esango degu ofeialakorik, denbora asko bifi lenago, askoren gahetik jariko geran itzaropena degu.

Laxter, bear bada datofen astetik, asiera emango diyogu ekifioaldi: gaur ko asko det esanakín zortzi talde gutxienez izango gerala.

Bi, edo iru ilabete badira izpafingel onen bitartez itz bi egin nitula, ezpatadantzarian utsumear, eta oraindik badira, garaiala zela ezaten dutenak.

Ona emen zer esaten nuan:

Gai oietzaz, zati aundi bat «Loatxo» M. G. B.'ren gain dago. ¿Eta beste zatia norena?

Beraz etzan gurea bakarik egitekoa, bear bada besterena gelago, geurea gifi, orduan ez esan garala zela.

«ABERRI»REN OMENALDIA. — Euskel idazlerik etzela bifi, agertu dirá ugari, iritzia emendik, eta iritzia andik ibili ondoren datofen igandean izango da omenaldi ori. Nik, joaterik nola ezdaten izango, egun bikain bat izan dedin euskeran alde eta or bitzen zeraten guztiori opa dizuet.

Zubi Ondo

No viaje usted sin ONDOIBIL, infalible contra el MAREO

tiol ongi-etofri maitekor bat EL DIA'ko euskal ori onen bitartez.

Agur ba guztioi, ta biar arte.

«MIRENTXU»

«Yolanda» ta «Arantza» juatekoak dituzula ueste det. ¿Nola ez? «Itziar-txo»rena ere artuko zenun onezkeru, baña baezpada ere adierazten dizut. Berdin Zubimendi'tar Joseba'rena. ¿Eun bildu baitez? — L

### Euskaldunon meza

Foxpolifien meza ematen dan ezkerro, itzaldi xamur, berezi aiek egin izan dizkigun Aita Kaputxinoa, Sar-kotza'ra baldua zutela jakin zan ezkerro, meza ortaraxe jafi geranon biotza dardar euki degu, ain ederki asitako elizkizun eder au gelago izango ez ote genuanen kezka.

Jaungoikoari eskefak ez da ofela gertatu.

Euskaldunon meza izango degu au ferantzean ere, lengo orduan, amar terdieten.

Izlaria ere, bat juan ba zaigu, bes-tea etofri, ta biyar asita Aita Alegi, gipuzkoar jatorak egingo dizkigu igan deroko azalpenak.

Auferá, ba, kristiau fedez beteak.

### Idiazabal

ITZALDIA. — Emakume Abertzale Batzak eratutako lenengo itzaldia genduen igandean eta izlarik Asti-gafaga'ko «Zalofia» eta Segura'ko Afeta.

Ala beafez geu ere bertaratu gifan. Eta... izlarik gazteak baziran eze, bai entzuleak ere. Nola gizoneko ala emakume, gaztedi edefa bildu zan, izlarik zlotena ikasi eta beren lana gogoz txalotzeko.

Lenengo «Zalofia»k itzezin zuan, jabur baño sutsu ta egoki.

Bigafen Arieta'k, patzaraz, aufetik itzezin zuenak sutu zuen suan opilak ipintzen bezelaxe. Biak sutsu txalotu gifintzen, Eusko Abendaren ereserkia edo inoa (onela ondo aldago, Irular?) gogoz abestu ta bukatu zan itzaldi eder ura.

Itzaldi edefa esan det, edefa eta beafekoa ere esan dezaket, bada oso bafeko zaitzigu safi-safi onelako itz-estak, gure gaztediak jakin dezan zer dan abertzaletasuna eta zergatik geran abertzale. ¿Zorionak! izlari eta eratu deutenai.

ARGIA... Entzun dedanez Sagastu-met'ar Jokin'ek sakduko digu, emetik aufera «Argia» asteroko edefa, igandero igandero, eta ia guziok irakur-tzen deñefen bada ludi edo mundu guziko beñak euskera ezez-efezean jakiteko aukerakoa deñete.

IBILTARI

Dr. Clavero (dentista)  
FUENTERRABIA, A, principal

# FABRICA DE IMPERMEABLES

# EL BUFALO



## (Primera en España)

Precios tarifados a la vista del comprador. - No deje de visitar los escaparates de Impermeables «EL BUFALO». - En ellos encontrará siempre lo que desea. - Surtido inmenso, precios asombrosos. - Fabricamos siempre lo más nuevo.

Fábrica y Oficinas, Oquendo, 2.  
Exposición, Boulevard, 1.  
Sucursal, Avenida, 28.